



KONPROMISO SOZIALA

Dbus-ek hainbat kausa sozialekin bat egin du 2017an zehar, eta autobusek dagokien bereizgarria eraman dute, zenbait jarduerari laguntzeko erakusgarri gisa.

I GIZARTE EKINTZA

2017an gauzatutako lankidetzak guztien erakusgarri txiki bat da hau.



Gaixotasun Arraroen Munduko Eguna, otsailaren 28a



Ijito Herriaren Nazioarteko Eguna, apirilaren 8a



Dravet Sindromearen inguruko Kontzientzia Eguna, ekainaren 23a



Haurren aurkako tratuen nazioarteko eguna, apirilaren 25ean



Bularreko Minbiziaren aurkako Munduko Eguna, urriaren 19a



Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna, azaroaren 25a



IHESaren aurkako Borroka Nazioarteko Eguna, abenduaren 1a



Entzutearen Nazioarteko Eguna, azaroaren 15ean




Transexualen, bisexualen, lesbianen, gayen eta queerren askapen afektibo-sexualaren nazioarteko eguna, ekainaren 28an

2017an, Dbus-ek zenbait elkarterekin eta gizarte talderekin lankidetzan jarraitu du.

I. I. Euskal Karabana Sahararen alde

Dbus-ek "Elikatu itxaropen bat" Sahararen aldeko Euskal Karabanan lagundu zuen, bere instalazioak lagata elikagaiak biltzeko eta ondoren kamioetan kargatzeko.



1.2. ONCEren “Garraio Tour” –en parte hartzea

ONCEren Astea dela eta, Dbusek “Garraio Tour” jardueran parte hartu zuen 2017ko ekainean. Gipuzkoako hainbat garraibidetan ibilbide bat egitea izan da jarduera eta bere helburua izan da jendea ohartaraztea zer zailtasun dituzten itsuek garraio publikoan bidaiatzen dutenean eta erakustea zer esfortzu egiten duten garraio operadoreek irisgarritasunaren alorrean.

1.3. Bide Heziketarako Eskola Kanpaina

Aurten ere, beste urte batez, Donostiako Udalak, udaltzaingoaren bitartez eta DBUSen lankidetzarekin, Bide Heziketako Kanpaina bat antolatu zuen hiriko ikastetxeetarako. Maiatzean zehar, Donostiako ikastetxeetako ia mila neska-mutikok parte hartu zuten Bide Heziketako Eskola Kanpaina horretan. Haur askok DBUSeko autobusak erabili dituzte Gros auzoko Okendo Kultur Etxera joateko, bertan egiten ari zen marrazkien azken erakusketa ikusteko.

Kanpainaren helburu nagusia da haurrak ohartaraztea ibilgailu partikularra gehiegi erabiltzeak dakartzan ondorioez, azalduta ohitura hori ez dela hirirako bat ere onuragarria, pertsonen arteko harremanei eta elkarbizitzari laguntzen ez diolako.



2 HARREMAN ZUZENA ELKARTEEKIN

Dbuseko autobusen **irisgarritasuna maximizatzeko** helburuarekin eta hiritar gehienei **garraio publiko erabilgarri eta eraginkorra eskaintzeko** helburuarekin, Dbusek mugitzeko premia bereziak dituzten pertsonen **elkarte batzuekin harreman zuzena** dauka, hala nola ELKARTUekin (Gipuzkoako Ezgaitu Fisikoen Koordinakundea), GIELMAREkin (Gipuzkoako ezgaituak martxan) eta ONCEekin.

Horretaz aparte, Dbusek harreman zuzena eta etengabea dauka **Donostiako auzoetako bizilagunen elkarteekin, bertatik bertara ezagutzeko zonalde bakoitzeko mugikortasun premiak** eta egungo zerbitzuaren alderdien gainean egiten duten balorazioa. 2017an, Dbusek bilerak egin ditu Uliako, Loiolako, Martuteneko eta Egiako bizilagunen elkarte eta taldeekin.

